

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gure proiektua litzateke, elektrizitatea sortzen duten gimnasioetako makinak sortzeko enpresa. Makina horiek ez ditugu osotasunean sortuko, izan ere, guk ez ditugu makinak egingo, baizik eta makinak erosi, eta horiei beharrezko aldakuntzak eginez energia sortu ahal izateko makinak bilakatuko ditugu. Makina horien funtzionamendua honelakoa litzateke, baina makina ezberdinak direnez, makinaren arabera funtzionamendu bat edo beste bat edukiko du; pertsona batek makina erabiliz indarra sortuko du, indar hori energia bilakatuko dugu, eta azkenik energia hori elektrizitate, hainbat gaur egungo energia iturri berriztagarrietan egiten den bezala.

Gure produktua bezero desberdinei begira sortuko dugu, hau da, edonorentzako eskuragarria izango da, eta gure bezeroak gehienbat, gimnasioak izango dira, baina baita ere, pertsona bakunei salduko diegu edota enpresei. Aipatu dudan bezala, prezioa eskuragarria ipiniko diegu makina guztiei, baina makina ezberdinak egiteko asmoa dugunez eta bakoitzaren ezaugarriak desberdinak izango direla kontuan hartuz, makina bakoitzak bere prezioa edukiko du.

Gure enpresa taldeko kide baten osaba baten duen pabiloian edukiko dugu, eta toki horretan zehazki, makinak energia sortzeko beharrezko aldakuntzak egingo ditugu, eta baita ere, bertan gordeko ditugu bezeroei eman bitartean. Makinak izorratu ezkerro, dauden tokian bertan konponduko dugu normalean, baina baliteke hori egin ahal ez izatea, eta beraz, gure pabiloira eramatea bertan konpondu ahal izateko.

Proiektu hau burutzeko, gure aurrezkiak erabiliko genituzke, eta beharrezkoa balitzateke, gurasoek utzitako dirua edo bankuak utzitakoa. Honetaz gain, hainbat babesle edukiko ditugu eta hainbat elkarte edo enpresekin aliantzak egingo ditugu.